



Abraham Olano Klasikoaren edizio «berezi» aurkeztu dute

TOLOSA ▶ Hilaren 21ean korrituko da X. Nazioarteko Zikloturista Klasikoa, Olarraingo Peña Olanok antolatuta

IBILBIDEAK ▶ Aurten hiru ibilbide izango dituzte aukeran txirrindulariek: 68, 114 eta 168 kilometrotakoak. ▶ 4

Eskualdeko sei gazte EAEko kontserbatorietako orkestra publikoarekin

TOLOSALDEA ▶ Madrilen izan berri dira Iker Otermin, Goizargi Iglesias, Gabriel Yoldi, Unai Artola, Xabier Zelaia eta Helena Orcoyen ▶ 2

N. URBIZU



LEITZALDEA ▶

Jon Oronoz,
Kontseiluko
teknikari
berria
eskualdean

Leitzarra Bai
Euskarari Ziurtagirien
ebalua ketaz
arduratuko da ▶ 7

CESAR ROCA ▶

IBARRAKO
ENTRENATZAILEA

«Lan egiteko
konpromisoa
izan da gakoa
aurten»

Zaila duen arren,
oraindik Liga irabaz
dezake Ibarrek; bi
jardunaldi falta dira ▶ 6

TOLOSALDEA ▶

Eskolarteko Udaberri Jokoak, prest. ▶ 3



Euskal Herriko paisaia miresgarrienak,
Santiago Yanizen begirada berezitik.

MUSIKA ▶

NEREA URBIZU

Eskualdeko sei gazte izan dira Madrileko El Escorial herrira (Espainia), bertan EAEko orkestra publikoarekin lau obra maisu eskaintzeko asmoz. Goizargi Iglesias eta Helena Orcoyen ibar-tarrak, Iker Otermin anoetarra eta Gabriel Yoldi, Xabier Zelaia eta Unai Artola tolosarrak dira, hain zuzen ere, sei gazte hauek. Donostiako goi mailako kontserbatorioan ikasten dute, haiek aukeratutako musika tresna: Oterminen tronboia, Iglesiasen tronpa, Yoldi eta Zelaia tronpetak eta Artolak bibolina; eta, amaitzeko, orkestrako ahots sopranoa Helena Orcoyen da. Madrilerara joan ziren Aste Santu ondorengo astean, asteazkenetik ostirala bitarte.

Ostegunean Galapagar herriko Auditorioan haien kontzertua eskaini zuten, baina «pena izan zen, data ez zelako batera ona, eta jende askok garai horretan lan egiten zuelako», musikarien arabera. Izan ere, 70 bat lagun bildu ziren. Hala ere, saio ederra eskaini zuten orkestrakoek, «guztien artean onena», Gabriel Yoldi-aren ustez. Ez baitute Madrilen soilik jo, Eibarren eta Baionan ere egon baitira.

Granadosen *Goyescas*, Ravelen *Ma mere Joie*, Sorozabalen *Mendian* eta Milhauden *Idia teilatuan* obrak prestatu dituzte. Beste emanaldi bat falta zaie, Bilboko Euskalduna Jauregian egiteko, hilaren 21ean.

Madrilgo egonaldia

Asteazkenean autobusez Escorialera iritsi ziren eta, ailegatu bezain pronto, Escorial bisitatu zuten, monumentoa bera. Ondoren, batzuek *masterclass* deritzona izan zuten; hau da, bertako irakasleek zuzendutako klase berezia, bakoitzak bere espezialitatekoa.

Denak ez ziren berdinak izan, baina orokorrean «gustuko» izan zuten. «Zerbait berezia izan zen, egunero egiten ez den zerbait». Dena den, batzuek azpimarratu zuten, asteazkenean klase berezi hori jasotzea «ez zen ondo egon», bidaiaz nekaturik baitzeuden, eta ez zeuden horretarako ehuneko ehunean.

Ostegunean entsegu oroko-

Bertako soinuak Madrileraino

EAEko kontserbatorioetako orkestra publikoa Escorialen izan da, eta eskualdeko sei musikarik hartu dute parte, haien onena eskaintzeko asmoz

rra egin zuten jo beharreko aretoan, eta arratsaldean azken errepasoa egin eta saioa eskaini zuten. Ostiralean, Madrileko Teatro Realen egon ziren; beraz, turismoa egiteko aukera ere izan zuten.

Nahiz eta orkestran denok batera jo, eta adin beretsukoak izan, «ez genuen leku berean lo egin, ezta jatordurik egin ere». Hori ez dute «zentzuzkoa» ikusi, baina «antolakuntza kon-tuak direla uste dugu. Hala ere, denok elkarrekin egon izan bagina, giroa izan dena baino hobea izango litzateke».

Egonaldian onena

Tolosaldekoek «ahaztuko ez duten esperientzia» izan zuten. «Onena, kontserbatorio ezberdinetako jendearekin har daitzeko harreman onak izan dira, baita giroa ere. Gainera, orkestra batean parte hartzeko aukerak ez dira gehiegizkoak, eta hau, horietako bat izan da», Tolosaldekoen hitzetan.

«Dezepzio pixka bat izan dugu, jende gutxi joan zelako ikustera. Horrez gain, hiru eguneko egonaldia gutxi da». Euskaldunara jende gehiago joango dela espero dute; gainera, bertara joate hutsak merezi du, «oso ondo entzuten delako eta leku ederra delako».

Orkestrak urte bat bete du

Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko goi mailako kontserbatorioetan dauden ikasle gazteek hartzen dute parte orkestra publiko honetan. Urte bat bete du proiektuak, eta hiru orkestraren arteko entseguak Eibarren egin dituzte: aurten Aste Santu aurreko egunetan zehar egon ziren. Irailen ere han igaro zuten ia astebete. Musika tresnako, gutxienez probintzia bakoitzeko ikasle bat hartzen saiatzen dira antolatzaileak. Gero, orkestran izango duten lekua hartzeko atril proba egiten dute. Orkestrak gehiago bidaiatzeko asmoak ditu: Frantziara joatekoa, esaterako, hurrengo ikasturtean.



Ezker-eskuin eta goitik behera: Iker Otermin, Goizargi Iglesias, Gabriel Yoldi, Unai Artola, Xabier Zelaia eta Helena Orcoyen, Madrilgo Galapagar herriko auditorioan, saioa egin aurretik. N. U.

LUIS SANSEBASTIAN ▶ IRAKASLEA

«Kontzertuak emateko garaian ikasle bakoitzak zeukan guztia eman du»

Donostiako goi mailako kontserbatorioari klarinete irakaslea dugu Luis Sansebastian. 46 urteko tolosarra izatez, oraingoan zentruen barneko orkestraren egonaldiak antolatzea suertatu zaio. Horrelakoak eta bestelakoak aipatu dizkio HITZAIL.

Zertan datza Intercentros delako orkestra?

Intercentros Euskal Autonomi Erkidegoko kontserbatorioek osatzen dute. Zentroetan ez dago orkestra handietan jotzeko aukerarik, jende kopuruarengatik gehienbat. Indarrak batzea erabaki genuen duela urtebete, harremanak sendotzeko, baita ikasleen artekoak ere, eta azkenik, egitarau sinfonikoa bultzatzea.

Zein da honen helburua?

Erronketako bat, ikasleak jotzaileak diren heinean, frogatzea gai garestu jendea gureganatzeko, kudeaketa ona egiteko, espektatibak betearazteko.



N. U.

Horrez gain, orkestra profesionalek funtzionatzen duten moduan funtzionatzea. Egia da ikasleek ez dutela orkestra sinfoniko batean jotzeko aukera handirik ere, eta hau modu bat da.

Madrilerara joateko aukera nola suertatu zen?

Hasiera batean elkartrukea egin nahi genuen hango ikasleekin, Escorialekoekin. Gainera, han hezkuntza orokorra eta musikako ikasketak integratuta daude. Interesgarria iruditu zitzaigun, eta aukera izan zen hura ezagutzeko.

Ikasleek espero zuten maila erakutsi dute orkestran?

Ondo portatu dira. Gabeziak daude, noski, talentuak bakanak baitira, baina emaitzak onak izan dira. Bakoitzak eman du zeukan guztia.

Euskaldunak jotzekoak dira hilaren 21ean.

Erronka handia da Bilboko kontzertua. Lan artistikoaz gain, ikasleak dira jotzen ari direnak, eta onenak ere bost urte baino lehen ez dira orkestra profesionaletan sartuko, oso gazteak direlako, eta maila baxuetan daudelako. Esperientzia bezala ahaztezina izango da Euskalduna bezalako leku batean jotzea. ◀

ELOLA
bede ALTZARIAK

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Tel.: 943 65 29 01
- Armairui enpotratuak neurritan. Lizardi poeta, 2
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena TOLOSA

KIROLA ▶

Bihar hasiko dira Eskolarteko Udaberri Jokoak

Eskolarteko Olinpiaden zikloari emandako etenaren ondoren, zentzu berri batekin jarraipena emango diete



Kurkezpenean, Udaleko eta Hirukideko, Laskoraingo eta Anoetako ikastolako ordezkariak. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Eskolarteko Tolosaldeako Udaberri Jokoei hasiera emango diete bihar. Hori dela eta, Eskolarteko Olinpiadei amaiera emanaz, ziklo berri baten hasiera aurkeztu zuten, atzo, Tolosako udaletxean. Bertan hitz egin zuten Asier Bakaikoa Tolosaldeko Udaleko Kirol Teknikariak, Ioseba Aizpuru Hirukideko Gorputz Heziketako irakasleak, Patxi Goya Anoetako Ikastolako koordinatzaileak, eta Ane Ezeizabarrena Laskorain ikastolako koordinatzaileak. Egitasmo hau gauzatzeko ideia atera zuten den Eskolarteko kontseiluan proposatu zen, eta udaletxeak bere laguntza eskainiko dio.

Eskolarteko Olinpiadak

30 urteetan zehar TEEK (Tolosako Ekinbide Etxea) Eskolarteko Olinpiadak antolatatu izan zituzten, eta ospe handia zuten. Baina ia zentzu berri batean osatu topaketa hauek, eta Ane Ezeizabarrenaren esanetan, «aurten hasiko direnak zentzu ezberdin bat izango dute». Hasiere batetik, jardunaldi hauen helburua kirola sustatzea edo bultzatzea zen. Horrela, urtean zehar horrenbeste lantzen ez ziren kirolen inguriko txapelketak antolatzen zituzten. Ho-

ESKOLARTEKO UDABERRI JOKOAK ▶

Hiru asteburutan zehar, larunbat goizetan jokatu dira, Usabalen, Berazubien eta Uzturpen.

MAIATZAK 6

Alebinak. Herri Kirolak
Benjaminak. Igeriketa.

MAIATZAK 13

Alebinak. Softbol.
Benjaminak. Atletismoa.

MAIATZAK 20

Alebinak. Atletismoa.
Benjaminak. Herri Kirolak.

rien artean herri kirolak, atletismoa, pilota, badmintona... Honekin, urtean barna emandako hutsunea bete nahi zuten.

Hala ere, urteak joan ahala gero eta aktibitate gutxiago egiten ziren topaketa hauetan, bereziak bakarrik mantentzen ziren. Eta Olinpiadek barnean zuten zentzu galtzen joan zen, urteko jardueren gehigarri bilakatu ziren. Horregatik, azken zortzi urteetan, jardunaldi hauek bertan behera uzteko ideia zabaldu zen Tolosako Ekinbide Etxeko kideen artean. Eta joan den urtean betiko amaiera eman zitzaion.

Udaberri Jokoak

Eskolarteko Tolosaldeako Udaberri Jokoak Eskolarteko Olinpiaden jarraipena izango dira, eta ez gauza berri bat. Hala ere, Laskoraingo koordinatzaileak azaldu zuenez «oraingoak lasaiagoak izango dira». Lehiakortasuna murriztu nahian, parte-hartzaile guztiak egongo dira opariak, eta atletismoan bakarrik banatu dira dominak. Gainontzekoetan ez da egongo sarien araberako sailkapenik.

Aurten egingo diren topaketan alebin eta benjamin mailako 600 haurrek hartuko dute parte. Olinpiada hauetan bost eta seigarren mailako gaztetxo guztiak jokatu ahal izango dute, ez soilik urtean zehar kirol jardueretan aritzen direnek. Honetarako ikasle bakoitzak dagokion ikastetxean izena eman beharko du.

Jardunaldiak hiru asteburutan zehar gauzatu dira. Igeriketa probak Usabalgo kiroldegian jokatu dira, atletismoak Berazubiko atletismo pistetan, eta softbol eta herri kirolak Villabonan gauzatu dira. Tolosa, Alegia eta Ibarraenak, berriz, Tolosan.

ATLETISMOA ▶

Emaitza onak Tolosako ikastetxeentzat

Infantil mailako Eskolarteko Gipuzkoako Atletismo Txapelketa jokatu zen igandean



Orixe eta Hirukide ikastetxeetako korrikalariak. HITZA

E. EZEIZA

Eguraldi ezin hobearekin, pasa den igandean jokatu zen Hondarribiko pista berrietan ikastetxe arteko Atletismoko Gipuzkoako Txapelketa, infantil mailan.

Bertan eskualdeko sei talde sailkatu ziren: mutiletan, Hirukide A eta B, Orixe, eta Laskorain. Nesketan, berriz, Hirukide eta Orixe. Denak autobusean batera joan ziren talde giro bikaina sortuz.

Jardunaldi hau oso garrantzitsua zen Tolosaldeko kirolarientzat. Izan ere, lehenengo bi sailkatuak hilaren 27an Tolosan bertan jokatuko den Euskadiko Txapelketarako txartela lortuko zuten. Horrela, emaitza onak lortu zituzten. Baita nesken nahiz mutilen Euskadiko Txapelketarako txartelak ere. Bi sariak ikastetxe berarentzako izan ziren: alde batetik Hirukiderentzako. Bestetik, Tolosako talde larriak bigarren postua lortu zuten bai mutiletan eta bai nesketan, eta honekin Gipuzkoako atletismoa errepresentatuko dute hilabete honen amaieran.

Hala ere, Tolosaldeko gainontzeko ikastetxeak ere oso fin ibili ziren lasterketan, ta eskualdeko atletismoaren indarra erakutsi zuten beste taldeen aurrean. Laskorain ikas-

tolako mutilak hirugarren postu on bat lortu zuten eta hauen atzetik Orixe institutu-talde oso gazte bat sailkatu zen. Nesketan ere Hirukideren atzetik, hirugarren postu ezin hobe bat lortu zuten Orixe neskek, oso ondo hauek ere denak lehenengo urteko infantilak zirela kontutan hartuz gero.

Banakapen lana ikusita, lehenengo postu ugari lortu zituzten Tolosaldeko ikasleek. Nesketan, 500 metroko proban, Maria Lopezek irabazi zuen; bestetik, altueran, Maialen Berasategik; eta pisu jaurtiketan, Oihane Palaezek. Mutilen dagokienez, 80 metroan Iker Epeldek lortu zuen garai-pena; hesien 80 metrokoan, berriz, Lander Gilek; altueran, Joxemi Jauregik; luzeran, Xabier Leundak; eta pisu jaurtiketan, Mikel Ayerbek.

Sailkapen orokorrari dagokionez, nesketan Txingudi ikastetxe irundarra dago lehen postuan, eta mutiletan Oianguren ordiziarra. Ondoren, berriz, bi multzoetan, hurrenez hurren, Hirukide eta Orixe ikastetxe tolosarrak daude.

**ZABALA
DESGUAZEA**

Beotibar Indutrigunea, 18
BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Zer iruditzen zaizu Voith-Gorostidi etxebizitza tasatutako zozketan parte hartu ahal izateko jarritako baldintzak?

KIROLA ▶

NOELIA LATABURU

Heldu den maiatzaren 21ean Abraham Olano Nazioarteko X. Zikloturista Klasikoa izango da, txirindulari ohiaren Peñak antolatuta. Aurreko urteekokin apurto eta edizio berezia izango da honakoa, Tolosaren 750. urteurrena dela eta. Hala, Olarraingo Peña Olanok Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren babesarekin izan du antolaketa burutzeko garaian. Aurkezpen ekitaldia atzo egin zuten, non Abraham Olanorekin batera, Peñako lehendakari Jesus Manso eta Fundazioko koordinatzaile Gurutz Zubeldia izan baitziren.

«Urteurrenak aitzakia baino ez du izan nahi, arlo guztietako ekimenak antolatuzeko», azaldu zuen Zubeldiak hitza hartzerakoan. Kirol arloan babesten duen lehen ekitaldia da hau, «lanik handiena Peñak egin duelarik». Jesus Mansok, bere aldetik, «Olanoren dedikazioa» eskertu nahi izan zuen eta aurreko «klasikak urteurrenaren maila lortzea» espero du. Bere zitasunetako bat, hain zuzen, profesional mailako korrikalari ohi batzuen parte-hartzea izango da, besteak beste, Arsenio Gonzalez, Iñaki Gaston eta Prudencio Indurain. Gehienek ibilbide ertaina egingo dutela eman zuen jakitera Olanok; berak, aldez, «luzea egiteko saia-kerak» egingo du.

Klasikoaren nondik norakoak

Klasikoak hiru ibilbide desberdin izango ditu aukeran, 68, 114 eta 168 kilometrotakoa. «Azken hau gogorra da, baina Quebrantahuesos prestatzen ari direnentzat oso egokia da; izan ere, orduntxe hiru aste eskas faltako dira». Tolosari omenaldia egiteko zerbait berezia egin nahi zutela esan zuen Jesus Mansok aurkezpenean. Parte hartzeko beharrezkoa izango da federatua egotea eta izena ematerakoan 21010152 65 0010089662 kontu korrante zenbakian 15 euro ordaintzea.

Izen-emate orria hil honen 17a baino lehen bidali beharko

Klasikoaren edizio «bereziarena» prest, 750. urteurrena «merezki bezala ospatzeko»

Abraham Olano X. Nazioarteko Zikloturista Klasikoa antolatu du hil honen 21erako Peña Olanok, Tolosa 750. Urteurrena Fundazioaren babesarekin

ZAILTASUNA

Ibilbide luzeena «oso gogorra» da, eta egokia izan daiteke ekainean den Quebrantahuesos proba prestatzeko

da postaz (Photon kirolak, pescadores de Terranova kalea 13, behe; 20011-Donostia helbidera). Halaber, 943 47 48 26 fax zenbakia erabil daiteke eta Fundazioko Zubeldiak informatu zuenez, «guztia www.tolosa750.net orrian dago erabilgarri». Dorsalak bulego iraukorrean jasoko dituzte hil honen 20an, 16:00etatik 20:00etara, edo egunean bertan 06:30etik 07:30era irteeran. Parte-hartzea «inoiz baino altuagoa» izatea espero dute.

Egunean, 08:00etan bilduko dira txirindulariak Usabalera; Bentaundira abiatuko dira, eta bertan ekingo diote lasterketari. 120 pertsona ariko dira lanean, elkarre gastronomikotako kideak barne. Usabal kiroldegiko dutxak ibilbide luzeena egiten dutenentzat ere irekiko dituzte. Partaideen artean opariak banatuko dituzte, eta marka desberdinetako materialen zozketa ere izango da. Behin amaituta, Usabal sagardotegian bazkari legea egiteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Giro bikaina, beraz, ziurtatua dago egun honetarako; izan ere, Klasikoarekin batera, sega apustua izango da Iurreamendiko zelaietan.



Donostian burutu zuten, atzo, aurkezpena Fundazioko eta Peña Olanoko ordezkariak eta Olanok berak. n. l.

ABRAHAM OLANO NAZIOARTEKO X. ZIKLOTURISTA KLASIKOA ▶

Hiru ibilbide izango dituzte parte-hartzaileek aukeran.

IBILBIDEAK

Ibilbide laburra. 68 kilometroko iraupena du. Tolosa - Alegia - Legorreta - Itsasondo - Ordizia - Beasain - Lazkao - Ataun - San Gregorio - Kaxeta - Urkillagako igoera - Ataun (hornidura) - Lazkao - Beasain - Ordizia - Itsasondo - Legorreta - Alegia - Altzoko igoera - Txarama - Tolosa - Bentaundi.

Tarteko ibilbidea. 114 kilometroko iraupena du.

Tolosa - Alegia - Ikaztegieta - Legorreta - Itsasondo - Ordizia - Beasain - Lazkao - Ataun - San Gregorio - Lizarrusti (610 m.) - Etxarri Aranatz (hornidura) - Arbizu - Lakuntza - Uarte Araki - San Migel de Aralarreko igoera (1.210 m.) - Baraibar - Lekunberri (hornidura) - Azpiroz igoera (605 m.) - Betelu - Lizartza - Txarama - Altzo - Txarama - Tolosa - Bentaundi.

Ibilbide luzea. 168 kilometroko iraupena du. Tolosa - Alegia - Ikaztegieta - Legorreta - Itsasondo - Ordizia -

Beasain - Lazkao - Ataun - San Gregorio - Lizarrusti (610 m.) - Etxarri Aranatz (hornidura) - Arbizu - Lakuntza - Uarte Araki - San Migel de Aralarreko igoera (1.210 m.) - Baraibar - Lekunberri (hornidura) - Azpiroz igoera (605 m.) - Betelu - Lizartza - Txarama - Altzo - Alegia - Ikaztegieta - Legorreta - Ordizia - Beasain - Cadena - Salvatore (hornidura) - Mandubiako igoera (545 m.) - Nuarbe - Azpeitia (hornidura) - Urrakiko igoera (820 m.) - Bidegoian - Bidania - Albiztur - Bentaundi.

XVII. Lore eta Landare azoka
maiatzak 6, berdura plazan (goizean zehar)

VILLABONA ▶

AHTren bila proba Herri Olinpiadetan

Onddo Gazte Asanblada antolatzen ari den Herri Olinpiaden hurrengo hitzordua izango dute bihar koadrila parte-hartzaileek. Beti bezala, 15:30ean elkartuko dira Gaztetxean. Biharko prestatu duten proba AHTren bila izeneko da. Bizikletarekin egin beharreko proba da, eta AHTk eskualdetik egingo lukeen ibilbidearekin zerikusia du.

VILLABONA ▶

Eskuzko eta erreboteko partidak

Tolosaldeako III. Pilota Topaketako partidak jokatu dira bihar Amasako udal pilotalekuan. 10:30ean hasiko dira partidak, afizionatuen mailan, ezku, lau t'erdian: Etxeberria (Kuku, Anoeta) eta Lizaso (Behar-Zana, Villabona); Galarraga (Aurrera Saiaz, Tolosa-Bidegoian) eta Ugartemendia (Zazpi-Iturri, Amezketa); Landa (Behar-Zana, Villabona) eta Martinez (Zazpi-Iturri, Amezketa). Etzi, Euskal Herriko Errebote Txapelketako partida jokatu du Behar-Zanak Zubietaren aurka, 11:00etan, Villabonako Errebote plazan.

IKAZTEGIETA ▶

Haur Eskolan izena emateko epea zabalik

Ikaztegietakoa Haur Eskolan izen-emate epea ireki dute, eta hara haurrak eraman nahi dituen edonork izena eman dezake hilaren 2tik 12ra. Horretarako, Haur Eskolara bertara joan beharko du, kiroldegiko eraikuntzan, 08:30etik 13:30era.

ZIZURKIL ▶ MAIATZA SALTSAN

Umeen Eguna eta Andatza Eguna, bi topaleku asteburuan

Maiatza Saltsan egitarauaren baitan egingo diren ekitaldien artean, gaur Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua



Xurdirin antzerki musikalaren irudia; Umeen Egunaren amaieran eskainiko dute. HITZA

IMANOL GARCIA

Gaur hasi eta asteburu osoan ekitaldiak antolatu dituzte Zizurkilen Maiatza Saltsan egitarauaren baitan. Izan ere, bihar eta etzi egun bereziak izango dira: Umeen Eguna egingo dute bihar, eta Andatza Eguna etzi. Baina horren aurretik, Loatzo musika eskolako haurrek kontzertua eskainiko dute. Gaur izango da ekitaldi hori, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean.

Lehenengo aldiz antolatu dute Umeen Eguna Zizurkilen, eta Kostata Gazte Asanbladak prestatu du egitaraua. 5 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendutako jokoak izango dira. Bihar, 10:00etan elkartuko dira Joxe Arregi plazan, eta ordu laurden geroago ekingo diete jokoei. Globo jokia, soka saltoa, zapi jokia, aulki jokia

eta marrazketa lehiaketa egingo dituzte. Sari banaketarekin amaituko da goizeko saioa. Arratsaldean ere egingo da jokorik, ginkana bat prestatu baitute. 16:30ean hasiko da, eta aurretik izena eman beharko da parte hartzeko. Ondoren, txokolatada egingo dute.

Egunari amaiera bikaina emateko, Xurdirin antzerki musikalari ikusi eta entzuteko aukera izango dute haurrek. Zizurkil Goiko Intxaur frontoian egingo dute emanaldia, 18:00etan, eta hiru euro ordaindu beharko dira. Antzezlan musikatuaeren istorioa Xurdirin eta bere lagunak bizi diren baso alaian gertatzen da. Egun guztian jolas berriak asmatzen eta jolasten pasatzen dute Xurdinek eta bere kideek. Onto izeneko izaki maltzurak beraien zoriontasuna zapuztu nahiko du. Haur ikusleek Xurdirin eta bere lagu-

nei lagundu beharko diete, hori gerta ez dadin. 2 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako antzezlan.

Usurbilekoekin batera

Andantza Eguna egingo dute etzi, izen bereko parajeetan. Zizurkildarrak eta usurbildarrak biltzen dituen eremu horretan aspaldidanik egiten da erromeria. Ohi bezala, hamaiketakoarekin hasiko da festa. Horren ardura izango dute Usurbilgoek. Haurrentzako eta helduentzako jokoak antolatu dituzte ondoren, eta horretaz

EGITARAUA ▶

GAUR
19:00. Loatzo musika eskolako haurren emanaldia, Atxulondo kultur etxean.

BIHAR
Umeen Eguna.
10:00. Joxe Arregi plazan elkartuko dira.
10:15. Jokoen hasiera.
13:00. Sari banaketa.
16:00. Ginkanarako izen-ematea.
16:30. Ginkana.
17:30. Txokolatada.
18:00. 'Xurdirin' antzerki musikalari Intxaur frontoian.

ETZI
Andatza Eguna.
11:00. Hamaiketako: salda, txorizoa, haragi egosia eta edaria.
12:00. Herri kirol eta jokoak haurrentzat eta helduentzat.
14:00. Bazkaria (norberak berea emanda). Kafea eta kopa banatuko dira. Goizean zehar, erromeria: trikitilari eta bertsolariak.

zizurkildarrak arduratu dira. Bazkaria egingo dute jarraian. Antolaztaileek kafea eta kopa banatuko dute, baina jatekoa eta horri laguntzeko edaria norberak eraman behar du. Trikitilariak eta bertsolariak eguna alaitzen jardungo dute.

Andatzara igotzeko bi modu izaten dira ohikoena. Alde batetik, Zizurkil Goian autoa utzi eta gero, oinez igotzen da jendea. Ordubetik pasatxoko ibilbidea izaten da. Gutxiago ibili nahi duenak, Zarateko benta-raino iristen da autoz eta handik egiten du oinez Andatzarainoko bidea. Igandea festa giroan pasatzeko eta Zizurkilgo txokoak ezagutzeko aukera ederra da Andatza Eguna.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

2006ko maiatzaren 4, 5, 6 eta 7a
18:00tik aurrera zabalik

M. Garayalde

5 KALIMOTXO mota aukeran

Zuloaga&Gureak-en zure landarea dago.

Gorka, Edurne, Ane, Ander, Maite, Oihana, Ion

“Zatuz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga&Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea z/g. 20014 Astigarraga, Futbol zelaiaren aurrean.

IBARRA ▶ GIZARTEA

III. Garagardo
Festa zabalik
da jada

I. Terradillos ▶ Atzo eman zioten hasiera Ibarako III. Garagardo Festari, eta igandera bitarte izango dira zabalik herriko plazan jarri dituzten karpak. Tolosaldeko Arraun Klubeko neskek izan zuten zinta moztearen ardura, aurtengo Gipuzkoako Batel Ligaxkako, Gipuzkoako Txapelketako eta Euskadiko Txapelketako irabazleak izan baitira. Gaurko egitarauari dagokionez, 18:00etan irekiko dute azoka, eta 23:00etan Gose taldearen kontzertua izango da. Bihar, berriz, 15:00etan *Ezetz txerriak 60 sagar errejan!* apustuaren grabaketa Izaskunen, 18:00etan festaren irekiera eta 18:30ean plazan 1, 2, 3... *Inaxito* antzerkia izango dira. INIGO TERRADILLOS



CESAR ROCA ▶ IBARRA ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA

«Aurtengo gakoa lan egiteko eta
entrenatzeko konpromisoa izan dira»

Denboraldia «ahal den hobekien bukatu» nahi du Rocak; bi partida falta dira Liga amaitzeko, eta zaila den arren, oraindik Ibarrek Liga irabaz dezake

INIGO TERRADILLOS

28. jardunaldia igarota, hirugarren postuan da Ibarra areto futbol taldea, 55 punturekin. Bere aurretik dira Logroño bigarren postuan, 55 punturekin, eta Alaves lehenengo postuan, 56 punturekin. Asteburu honetan atsedena dute talde guztiek, eta ondorengo bi partideetan erabakiko da aurtengo Liga. Ibarrek, baina, hurrengo asteburuan duen EHU Gipuzkoaren aurkakoa izango du azken partida, azken jardunaldian atsedena egitea egokitzen baitzaio. Beraz, beste taldeek 6 puntu lortzeko aukera duten bitartean, Ibarrek 3 baino ez ditu jokoan. Hori bai, geratzen zaion partida irabaziz gero Liga irabazteko aukerak izango lituzkete. Cesar Roca entrenatzailearekin egon da HITZA solasean Liga amaieraz eta aurtengo denboraldi bikainaz.

Liga irabaztea nahiko zaila duzue, baina itxaropena ez da galdu behar.

Gure egitekoa orain azken partida irabaztea da, eta hori lortu ondoren, Logroñoik eta Alave-



N. LATABURU

sek zer egiten duten ikusi behar. Alavesek partida bat galduta eta bestea berdindu, Logroñoik biak berdindu eta guk irabaztea litzateke aukera bakarra. Dena den, ahal den hobekien

bukatzea denboraldia da gure helburua.

Aurtengo taldea ez dirudi pasa den urtekoa.

Iaz, aukera guztiak genituen arazoekin ibiltzeko, eta horrela

izan zen; taldea berria zen, ia jokalarri guztiak berriak baitziren, eta, gainera, lesio ugari izan genituen, eta jubentekin jokatu beharra izan genuen. Baina azkenean maila mantentzea lortu genuen. Aurtengo taldea berbera izan da, baina lan egiteko eta entrenatzeko konpromisoa izan dira gakoa. Gainera, lesio gutxiago ere izan ditugu.

Espero al zenuten horrelako denboraldia egitea?

Sorpresa izan da denentzat, eta denak harritzen ginen lortzen genituen emaitzak ikusita. Hurrengo urtean maila berean jarraitzen badugu, kontraturako gara ez dela kasualitatea izan. Horrek konfiantza eman die jokalariei.

Datorren urtean, beraz, taldeko entrenatzaile moduan jarraituko duzu. Beste proiekturik?

Nagusiei entrenatzeko konpromisoa hartu nuen taldea sendotu arte, eta horretan jarraituko dut. Bestalde, areto futbolaren eskola moduko bat sortu nahi dugu gaztetxoak txikitatik kirol honetan hasteko.

BERASTEGI ▶

Podologoaren
bisita bihar
Gaztainondon

Bihar izango da podologoaren bisita Gaztainondo jubilatuen elkartearen. Ordua hartu nahi duenak elkartera joan beharko du, 16:30etik 19:30era, edo bestela 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 telefono zenbakietara deitu.

LEABURU-TXARAMA ▶

Herri Urratsera
joateko autobusa
antolatuta dute

Iparraldeko ikastolek euskal irakaskuntzaren normalkuntza indartzeko antolatzen duten Herri Urrats festa hilaren 14an izango da. Senpereko lakuaren baitan egiten den ekimenera joateko Leaburu-Txaramako Udalak autobusa antolatuta du, eta izena emateko udaletxera joan beharko da, astelehenean ostiralera, hilaren 10a baino lehen, eta 8 euro ordaindu.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orea. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

EUSKARA ▶

«Enpresetan euskaraz normalatasun osoz funtziona dezakegu»

Hori frogatzea du helburu Jon Oronozek, Leitzaldean Bai Euskarari Ziurtagirien ebaluaketa egiten duen teknikariak



Ikasketaz enpresari, lantoki desberdinetako langile, Jon Oronoz leitzarrak ilusioz ekin dio lan berriari JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Jon Oronoz Zubillaga (Leitza, 1976) ariko da Leitzaldean Bai Euskarari Ziurtagirien ebaluaketa egiten heldu diren bi hila-betetan. Bera Enpresa Zientzietan lizentziatua da ikasketaz, eta orain Kontseiluko teknikari da. Leitzaldeko Euskara Mankomunitatean dauden lau herrietan, Leitza eta Aresorekin batera, Goizueta eta Aranon ere, ziurtagiridunekin eta «ziurtagiridun berriekin» ere, lanean ariko dena, euskararen aldeko konpromisoen sustapena eta lekukotza eginez.

Jada lanari ekin dio. Aste honetan hasi da, eta Bai Euskarari Akordioari buruzko informazioa orokorrean eta Leitzalde-

ko egoerarena zehazki jaso ditu eta, horren arioren, datozen bi hilabeteetako plangintza egina dute jada.

Berak HITZARI adierazi dienez, aurreneko hilabeteen «sustapen lana» egiten dute: «Ziurtagiridun berriak egiten saiatuko gara aurrena: Bai Euskarari egitasmoaren berri emanen diegu oraindik ezagutzen ez duten lantoki, saltoki, erakundeei. Horretarako jada eskutitzak igorri ditugu eta gaur eta bihar bakoitzarekin bilera-hitzorduak adostuko ditugu». Horren harira, ikusi duenez, «egitura xehea duten enpresek euskararekiko duten konpromiso maila altua da, baina handiagoek ez dute halarik hartzen» eta bere ustez

hauek ere «oso eraginkorrak» izan daitezke euskararen normalizazioan: «Eskualde honetan gehienak euskaldunak gara eta jende euskaldunarekin lan egiten dugu, eta orduan enpresetan normaltasun osoz euskaraz funtziona dezakegu», ondorioztatuz. Arlo horri ematen dio garrantzi berezia aurtengo kanpaina honetan.

Zoriontzekoa

Bigarren fasea izanen dute «ebaluaketarena». Hori ekainean zehar egiten omen dute. Leitza eta Areson 52 ziurtagiri banatu zituen Kontseiluak iaz. Orduan euskararekin hartutako konpromisoen betetze-maila aztertuko dute ziurtagiridun bakoitzarekin bilerak eginez: «Batez ere konpromisoak betetzeko unean zailtasunik izan duten ikusi, laguntza eskaini... hori izanen da eginbeharrekoa», azaldu du teknikariak. Gero Kontseiluaren lana izanen omen da «txostenak hartu eta ebaluaketa eginez ziurtagiri maila erabakitzea».

Edozein moduz berak ikusi duenez, Euskal Herriko beste eskualdeekin alderatuz, «Beran, Lesakan, Leitzaldean dagoen euskararekiko konpromiso maila ez dago nonah», iritzi dio. Eta gainera, «herrietan komertzio eta enpresa tikiak dira euskararen normalizazioaren alde lan gehiena egiten ari direnak ere eta konpromiso maila mantentzea bakarra bera ere zoriontzekoa da», adierazi du: «Jzena bada, baina izana ere bai. Hor dago frogan».

GIZARTEA ▶

Hegaztiak erregistratzen ari dira Leitza eta Areson

Hegazti gripearen aurkako neurri modura, Nafarroako Gobernuak agindu du

ERREDAKZIOA

Leitza eta Areson, bi udalderetxeetan, etxe-hegaztien erregistroa delakoa egiten ari dira azken egun hauetan. Nafarroako Gobernuak hala eskatuta.

Bi herrietako herritarrek, Nafarroako besteetan bezala, etxean hegaztiak badute, udalxerara joan eta zer hegazti mota eta zenbat dituzten ageriko den «zentsu-orria betetzera behartuta» omen daude. Hori egiteko epea hil honen

15ean bukatuko dela ere jakinarazi dute bertatik.

Eginkizun hauek hegazti gripearen aurkako neurrietan urrats modura ezarri ditu Nafarroako Gobernuak, «herrialdean hegaztien kontrola» egin nahi dutelako: «Hegazti gripeari dagokionez, bijilantzia fase aktibo eta pasiboan» omen dago, batez ere «migraziozko hegaztiak izan dezaketelako eraginagatik». Horren harira, etxetako tegiak isolatzeko aholkuak eman dituzte.

HEZKUNTZA ▶

Bertso paperetan eta deklamazioan irabazle

Erletako eta Aresoko eskoletako ikasleek sariak irabazi dituzte; ekainean jasoko dute

J. ASTIBIA

Leitzako Erleta eskolako eta Aresoko eskolako ikasleek aurtengo edizioan ere irabazle suertatu dira: Nafarroako eskolarteko bertso paper lehiaketa eta deklamazioko lehen sariak eskuratu dituzte hainbat mailatan.

Eskolarteko Bertso-paper lehiaketan, Bigarren Zikloko ikasleetan, alegia, 3. eta 4. mailako umeetan, Nafarroako guztien artean, Martxel Intxausti leitzarrak irabazi du lehen saria. Eta, Ane Miren Barandiaran aresoarrari eta Mikel Sagastibeltza leitzarrari, Aipamen Berezia egin diete; Hirugarren Zikloko (5. eta 6. mailaketako) beste hiru ikaslek

bezala: Xabi Eraso aresoarrari eta, Martxel Kalonge eta Aina Saralegi leitzarrei. Hauek guztiek heldu den astean Leitza egitekoa den Mendialdeko Eskolarteko Bertso Paper Lehiaketan jasoko dituzte sariak.

Bestalde, Erleta eskolako 3. mailako *Kontakatu* taldeak, Sagrario Lasarte irakaslearekin eta 5. mailako *Berri* taldeak, Kontxi Alfaro irakaslearekin, dagokien zikloetako mailan, Pedro Diaz de Ultzurrun Deklamazio Sariak irabazi dute.

18 eta 15 ikasle biltzen dituzten bi talde hauek ekainean jasoko dituzte sariak Iruñeako Nafarroako Jauregian egitekoa den ekitaldian.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko maiatzaren 5a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketak. Euskara elkartearen bilera.

18:30ean, balio anitzeko gelan.

Tolosa. Aralar VI. Txirrita mendi ibilaldia antolatuta du Oargi mendi taldeak hilaren 21erako. Amezketatik 06:00etan abiatu eta Aralarako 13 gailur igoko dituzte. 45 kilometro dira guztira, Amezketan amaitu arte. Izen-ematea, 943 67 56 12an edo oargi@telefonica.net, 10 eurotan.

Tolosa. Udaberri dantza taldeak sanjoanetarako Bordondantza entseguak hasi ditu. Nahi duenak ostegunetan agertu behar du, 20:30ean, Igarondo igerilekuan.

HITZALDIAK

Tolosa. Tolosaldea Donejakue bidean mahai-ingurua. Aranbxa Arzamendi, Donejakue Bidearen Adiskideen Elkarteko ordezkarri bat, Juanxo Agirre eta Gerard Rousse. 20:00etan, udaletxeko batzar aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebea. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irratiak (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepaso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...
21:00-22:00. Zaharrak Berri.
22:00-23:00. Arkako show.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARGAZKI LEHIAKETA ▶



Pedro Miguel Alonso (Villabona). «Aste Santuko egun hauek aprobetxatu ditugu Lizarrak aldera joateko eta inguruan dauden herri txikiak ikusteko; gailur baten gainean kokatuta dagoen herri txikia da Zirauki. Arratsalde partean ateratu genuen argazkia».



Irati Apaolaza. «Orhi mendiaren gailurrean ateratako argazkia da hau, Aste Santuetako oporretan».



Kepa Martinez, Andoni Alizate eta Jon Goitia (Olarraín-Ibarra-Belauntza). «Tolosaldeko hiru gazte gara eta Aste Santu hauetan, gure Vespa motorrak hartuta, eta eguraldia lagun genuela, Bizkaiko kostatik barrena ibili gara bidaian. Argi dago ez dela oso urrutira joan behar paraje zoragarriak ikusteko. Honen adibide, Gaztelugatbeko San Juan ermita. Merezki du handik txango eder bat ematea!».



Aitziber Irastorza (Tolosa). «Anecin Frantzian dagoen herri txiki bat da, eta bertan dagoen laku izugarriak ere herriak bezala du izena. Lakuan barkutxo txiki batzuk daude han paseotxo bat emateko eta ikus daitezkeen paraje ederrez gozatzeko, batez ere mendiena».



Maialen Martinez. «Edinburgoko alde zaharra, hiriarren zentroan dagoen mendi tontor batetik aterata. Eguzkitan egon arren, sekulako hotza egiten zuen, eta argazkia ateratu eta ordu parera elurra egin zuen».

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Jon Ander Arandia (Ugarte).
Gaur 4 urte. Zorionak Tolosako familiaren partetik.



URTE ASKOAN
Urki Artola (Tolosa). Atzo urtebete. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

hitza txokoa

▶ Hitza lagunen txokoa, zozketen irabazleak:

▶ Astelehenean, Maiatzak 8 - Beotibar pilotalekuan, 16:30etatik aurrera jokatuko diren pilota partidetarako bina sarreraren harpidedun irabazleak:


- ▶ PATXI RENOVALES TOLOSA (ALEGIA)
- ▶ IZASKUN KARRERA UGARTEMENDIA (TOLOSA)
- ▶ ANDRES ARAMENDI TXOPIETA (IBARRA)



▶ Ibarako III Garagardo Festarako bina afariren harpidedun irabazleak:

- ▶ JOXI LASA ARSUAGA (IRURA)
- ▶ JOSE LUIS IRAOLA GARMENDIA (VILLABONA)
- ▶ MILAGROS IZTUETA MENDIZABAL (ALTZO)
- ▶ JOSE RAMON ESNAOLA ZABALA (LEABURU)

Txartelak azokan bertan jaso beharko dituzte.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero